



■ Luis Pedro Peña Santiago etnologo, mendizale eta gure zoko-bazterren ezagutarazlea hil zen larunbat goizaldean. ■ 1964az geroztik ia urtero liburu bat idatzi zuen irundarrak. ■ Laburrean Iñaki Otxoaren espedizio berriaz hitz egingo dugu.

## Peña Santiago gogoan

Berriki hil da gure mendi eta bazterrak ezagutarazten hainbeste lan egindako gizona

R. OLASAGASTI / DONOSTIA

Euskal Herriko mendiak, baselizak, baserri zaharrak, bazterrak eta alboan ditugun aberastasun hainbat oharkabe dira gure begietara. Ez ditugu barnean gordetzen duten historia, ezkutatzten dituzten ohitura eta usadioak edo hauspotzen dituzten kondairak ezagutuko, ezta testigantza isilean gure altxorrik preziatuena diren bazter asko eta asko begietaratuko ere. Haatik, badira gure artean zeregin hori zenbateraino den plazer jakin izan dutenak. Zoritxarrez, horietako bat, Luis Pedro Peña Santiago. Bera larunbat goizaldean joan zen gure artetik.

1993ko urriaren 26an jaio zen Irunen. Aita zuen natura eta mendizalea, Peña Basurto, eta bere eskutik etnologia inguruko gaiak buruz hasi zen ikertzen eta idazten. Jose Miguel Barandiaran zena buru zela, Aranzadi Zientzia Elkartean sartu zen eta Etnologia Saileko idazkari lana egin zuen zenbait urtetan. Beharra ondo egin zale, 'Eusko-folklore' urtekariari arnas berria emateaz gain, 'Euskal Herriko Atlas Etnografikoa' bultzatu zuen.

Ez ziren urte asko pasatu egingdako lanak saileko lehendakari izatera eraman zuen arte. Barandiaranen lekukoa hartu zuen zeregin horretan. Euskal Herria izan zuen beti ikergai, eta gai horren inguruan hainbat hitzaldi eskaintakoa da, Europako lehen



1964. urteaz geroztik ia urtero liburu bat idatzi zuen Peña Santiagok.

Etnologia Kongresuan (1971) gogoangarrietako bat.

Ez zen, ordea, leku batean gelditu egotekoa, eta gutxi-gehigo naturaren inguruko elkarte askotako partaide izan zen: Euskalerriaren Adiskideen Elkartekoa, Ozeanografi Elkartekoa, Francisco Ibero Elkartekoa edo Fortuna Kirol Taldekoa. Lan gaitasun eskerra berea.

Elkarte horietan guztietan egindako lana, ordea, ez da isilean, bere etxeko apaletan gelduta gelditu, ezagupenak konpartitzeko eta ikasi-ikusitakoa ezagutarazteko ez baitzuen borondate faltarik etnologoak. Hala, 1964an hasi eta hurrezkeroko ia urtero liburu bat kaleratzen zuen Peña Santiagok. 'La Argizaiola Vasca' liburuarekin abiatu zen

bere idazle erreka eta erreka-errekastotik erreka emaro etorri 'Pays Basque-Euskal Herria' azken liburura arte. Tartean, urteko libururik salduenak izan dira berak sinatutako bi: 'La campana de oro' (1981) eta 'Del Orhi al mar' (1982).

### BIDAIARI ETA IDAZLE NEKAEZINA

Zuetako gehienok, baina, egunkarietan —'El Diario Vascon' hain justu—, gure zoko-bazterrak ezagutarazten argitaratu dituen idatziekin tuko duzue Peña Santiagoren zena. Euskal Telebistan ere, 'bilaldiak' serierako gidoiak gin zituen. 'Gorbel Haizea' betalaia maitetik hainbat ibilalangan gidari izana, gorbel haizea uri, halaxe joan da, leun-leun. Baina aipatu erreka-errekastotak, zalanarik ez, luzarorako lorratza ziko du mendizaleen artean.

Peña Santiago, ezagutzen zutenek esanda, bidaiari nekazina eta baserriaren senaren jabea zen. Hona hemen bere erranetakoko bat: «Barroko eta zeharo indibidualistak gara. Baserriak ematen duen guztiak, bere bakardade eta burugogotasuna barne, horretarako egiten gaitu garen gisakoak».

Peña Santiagok Donostiako Udalerriaren merituaren domina jasotzen zuen, egindako lanaren esker gisa. Dominak baino hagitik gehiago gogobeteko zuen, hala ere, etnologo, mendizale eta lagun giztien estimak. Gogoan bego.

JUAN SAN MARTIN Ararteko, mendizale eta laguna

IRITZIA



## Mendizale, leial eta langilea

bilduma liburua. Bigarren argitalpena, hain zuzen, nire gehigarri batzuekin argitaratu zen 1963an.

Luis Peña Basurto aita eta Jesus Elosegirekin batean Aranzadi Zientzia Elkartean sortzailerik aipagarriena genuen eta ekintza honetan ere nabarmendu zen. Lan askoren artean, besteak beste, Gipuzkoa eta Nafarroako mendietan aurkitu diren harrespilaren katalogoa osatu zuen, 1960an 'Munibe' aldizkarian argitaratua.

Halako aitarengandik erraz konprenitzen da seme leialaren zaletasuna. Luis Pedrorikiko harremanak betidanik etengabeak izan ditut, baina oroigarrienak Nafarroan elkarrekin Urraul garaiaren etnografiak eginiko ikerketak zeren Euskal Herriaren gutxien ezagutzen zen toki hura hautatu eta besterik gabe, zortzi egunez han miakatu genituen bazter guztiak. Baina Luis Pedro, hala ere, bere

buruarekin konforme ez, eta urtean zehar asteburuetan joaten ginen gure lana xehetasunez argitu ahal izateko. Lan hura Aranzadi Zientzia Elkartean argitaratu zuen 1966an.

Ez zen geldirik egoteko jaioa. Aranzadi Zientzia Elkarteko etnografia sailean Jose Miguel Barandiaran lagunduz hasi zen idazkari bezala, eta lanak bata bestearen ondorengatik argitaratuz joan zen 'Anuario de Eusko Folklore' berpiztuz, han kolaboratuz eta liburuak argitaratuz.

Baina ez zen etnografia sailaz bakarrik arduratu, baizik historia eta artea ere ikutzen zituen, eta gaiok era atseginean azalduak dira Gipuzkoan zehar oinez ibiltzeko burutu zituen gida liburuetan. Ondotik, Euskal Herri osora begira emango zituen gida liburu antzerakoak.

Gutziz hogeiren bat liburu ida-

tzi eta argitaratu ditu. Bere langiletasunez, lanak burutzeko metodo eta xehetasunez idatzi zuen 1969an, 'Arte popular vasco' liburuari hitzaurrea egiteko aukera eman zidanean. Geroztik zenbait argitalpen izan ditu liburu honek. Gaur bere lanei esker Argizaiolen katalogoa dugu, bestela galduko ziren aztarnarik utzi gabe.

Eta besteak beste, Euskal Herriaren sortu du ez bakarrik mendira besterik gabe joan edo ibili, baizik bazterrak, ermitak, historian zehar zerbait esan nahi duten tokiak ezagutzeko zaletasuna. Eta horri buruz lan bikainak eman ditu, esate baterako Ernio mendiko erromeriari buruzko gaiak. Bere poeta sentipenak garbi asko ikusten dira azken 30 urteetan 'Diario Vascon' idatzi izan dituen 'Gorbel Haizea' artikuluetan. Bere esperientziarekin, lan hobeak egiteko sasoian zegoen oraindik.

### LABURRAK

#### Iñaki Otxoa nafarra berriro Cho Oyura

■ Iñaki Otxoa de Olza nafarra Cho Oyura (8.201 m.) aldean abiatuko da datorren hilaren 2an. Otxoa joan den urtean ere mendi horretara joan zen, baina EEBBetako espedizio baten arabera, ez zen gailurreraino iritsi, nahiz berak kontrakoa esan. Kontuak kontu, igoera ez zen ofizializat hartu. Orain ez da zurrumurru horiek isiltzera joango, hiru mendizale bilbotarri laguntzera baizik. «Gidari eta antolatzaile lana egingo dut».

Espedizioaren eta baime-naren gastuak banatzeko beste bi mendizale nafar ere joango dira Cho Oyura, «baina kanpamentu nagusira iritsi orduko banandu egingo gara». Otxoa de Olzak besoa eta hiru saihetsezur apurtu zituen uztailearen 18an K-2n zegoela, baina antza denez osatuta, eta prest dago berriro zortzimilako bati ekiteko.

#### San Sebastian bart gauean iritsi bide zen Zaragozara

■ 'Al filo de lo imposible' programako kideek baietsi zigutenez, Juanjo San Sebastian mendizale bilbotarra bart gauean iristekoa zen Madrilera eta han Zaragozako eritetxera eramango zuten ambulanzia prest zeukan. San Sebastianek atzo bertan hartu zuen Pekindik Zurichera hegazkina eta han Madrilera ekarriko zuena hartzekoa zen.

Juanjok eskuetako bostetik bat hatz edo ditu izozteetan eraginekin. Rikardo Arregi ikusi arte ezingo da jakin izoztearen larritasuna, baina agi denez, ez dira hasieran uste bezain larriak. Gaur bertan egin bide diote ebakuntza.

#### Aldude-Ultzama ibilaldia

■ Aldude eta Ultzama arteko ibilaldia egingo da igande honetan Iparraldean Amikuzeko gau eskolak antolatutako Urepelgo Esnaasu plazan elkarretaratuko dira partehartzaile guztiak goizeko 6.30etan. Ibilbidea honako hau izango da: Gartzela, Argintxu, Oihalegi, Artesiaga, Eurti, Saioa, Okoli eta Ultzama. Parte hartu nahi duenak dei dezala telefonoz haurerara bihar edo etziz (07-33) 59 65 89 21 eta 59 65 86 14.